

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Norberaren eta besteen gorputz atalak ezagutzen ditu.
- Ikusmen (kolore, forma...) estimulu desberdinei mugimendu-erantzun zuzenak ematen dizkio.
- Oina lurrean ondo ipinita, orpo, oin punta, korrika eginez desplazatzen da.
- Espazioan orientatzen da ondorengo oinarrizko nozioak erabiliz; kanpo/barru, goi/behe, hurbil/urrun, aurre/atze, eskuma/eskerra.
- Itzulipurdia aurrerantz egiteko gai da.
- Eskuak erabiliz eta hankak erabiliz, mugimenduzko begi-esku eta begi-hanka koordinazioak egiten ditu: Pilotak kolpatu edo jo, jaurti, hartu, botea eragin, gelditu, paseak egin...
- Arnasa sakon hartu eta airea bota gabe, apur baten barruan mantentzeko gauza da.
- Erlaxazio orokorra erabiltzen du saio bukaeran.
- Suediar bankuan edo antzeko gainazaletan oreka mantentzen du.

EDUKIAK

- Ikusmen, entzumen eta ukimen bidez hautemandako estimuluaren aurrean erreakzioen lanketa, estimulu horien arabera mugimendu-erantzun egokiak emanez.
- Era desberdinetako desplazamenduak, jauziak eta birak, era koordinatuan eta espazioan ondo orientatuz.
- Objektuak erabiliz jaurtiketak eta harrerak, gorputz atalak koordinatuz eta gorputza ondo kokatuz.
- Gorputz postura desberdinetan orekak, amasketa, erlaxazioa eta tentsioa kontrolatuz.
- Jolasetan parte hartze aktiboa, bai mugimendu egokiak bai taldekideekin jarrera egokiak erabiliz.
- Gorputza eta tresnen bidez egitura erritmiko errazak.
- Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez, pertsonaiak eta egoeren antzezpenak naturaltasunez.
- Gorputza zaintzeari buruzko arauak; zehazki, higiene ohiturei zein arriskuen kontzientzia hartzeari dagokienez.

LH 2_GORPUTZ HEZKUNTZA

PUXIKA TENISA:

- Tenis partida bat jokatzea litzateke baina erraketarik gabe edo sortuz, piloten ordezt puxikak erabiliz. Horretarako, honako [orientabide hauek](#) jarraitu ditzakete ikasleek.
- [Bideo honetan](#) adibidea.
- Ikasleek egindako ariketen autoebaluazioa burutuko dute: [Autoebaluazioa txantiloia](#).

ZIRKUITUAK:

- Zirkuitu bat egingo dute ikasleek etxean ([adibidea](#)). [Bideoa](#) ikus daiteke nola eraman aurrera jarduera.
- Ikasle bakoitzak egiten duenaren inguruko ebaluazioa burutzeko honako [galdetegia](#) bete.

MASTERMIND (3 marran mugimenduarekin, ...):

- [Mastermind jolasean](#) arituko dira etxean bi ikaskideren artean.
- [Bideo honetan](#) ikasleei bidaliko zaien jolasaren garapena dago.
- Ikasleak, [ebaluazio tresna hau](#) beteko du dinamika amaitutakoan.

OREKA JARDUERA:

- Irakasleak bidalitako bideo baten bitartez oreka jarduera bat egingo dute ikasleek, hona hemen ikasleei helarazteko [adibidea](#).
- Ikasleek egindako ariketen [autoebaluazio tresna hau](#) burutuko dute.

MUGITU ETXEAN:

- Irakasleak etxekeekin batera mugimenduan aritzeko [bideo hau](#) ikusteko eskatuko die ikasleei.
- Hemen [azalpena](#).
- Irakasleak erregistro [taula](#) beteko du.

JAURTIKETAK (Saskibaloia, eskubaloia, futbola...)

- Etxean [jaurkiketak](#) egingo dituzte ikasleak bideoa ikusi ondoren.
- Ikasleentzako [autoebaluazio-galdetegia](#).